



exebaria!tar juañ anjel


EZPATA ZOROTZA

olerkiak

D5

EZKUTUKO ARIA

antzerkia



EZPATA ZORROTZA

oletkiak

EZKUTUKO ARIA

antzerkia

1987 - 2010

CLARENCE - 1987

Etxebarria'tar Juan Anjel

Azalean: Txillida'ren irudi baten ertzak

Depósito legal: BI 2.162 - 1969

GRAFICAS BILBAO — Gordóniz, 28 — BILBAO

DEADAR IXILLA

Ezbear mingotsak
ezpata zorrotza
barneratu eustan
zulatuz biotza.

Odoletan blei blei
nabilkizu gero,
samiñaren miñez
biotz-buruz ero.

Goizetik gabera
didar bizi baten,
samiñaren miñez
ixilla dan arren.

MIN BIZIA

Gaixo bat dadukat:

Miña.

Miñez dot gogo ta
soiña.

Miñaren bizia!

Bizi

guztia artzen daust,
bizi.

Bizitz-ezkutuki!

Soiña-

gogoan, danean
miña.

BAKE GORRI

Burua ametsez

larri.

Biotza odolez

gorri.

Begiak otzanki

bakez.

Ezpanak leunki

barrez.

IZAR ANTZERA

Izar bat antzo
nabil igesi,
mugagabea,
arin-bakarti.

Su ta garrezko
leizeak dodaz.
Azalez, baiña,
argi utsa naz.

Lurreko lagun,
pozik zaitezen,
ni argi utsa
beti ikusten:

Bakar nabilke,
bakar ta arin.
Barru-su-garrak
gorderik urrin.

NIRE ONTZIAN

Nire ontzian
joango urrin,
kresal-gaiñean,
mugagabe-min.

Gau ta egunez
zubian nausi,
urrun-bearrez,
lurrari igesi.

Ez dot izaro
bat be ikutuko.
Bare-ekatz-aro,
urez ibilko.

Berein ur-bide
barri idororen,
iñoren kide
ez lotzearren.

Egundaiño-ondar
kizkal-bakarti
izango, iltzear,
nire el-toki.

Samin-olatuz
biotza naste.
Izar dirdaitsuz
begiak bete.

MIÑEZ

Bilbo'ko
Hemeras Telleria'tar Pilar'1
amaika urteko illunaldi ondoren
irriparrea sortarazi daust-eta

Oiñaze miñetan
murgil
bizi nintzaizun, ez-
bai il.

Oiñaze miñetan
ito
bearrean, eta
kito...

Oiñaze miñetan
aren
itzak emon eustan
kemen.

Oiñaze miñetan
bera
ager, iñostala:
Gora!

URREZKO ARANTZA

Arantza bat nuen
lagunak sarturik.
Arantzak biotza
guztiz odoldurik.

Urrutiko oroitzen
ur-berak biotza
bustiz, urrezkoa
biur yat arantza.

AZAL TA MAMIN

Ibilli ta ibilliz,
iñun gelditu ez.
Biotz-muiña zauriz,
azala ametsez.

Ibilli ta ibilliz,
oiñak odoldurik.
Bularra intziriz,
bekokia zutik.

Ibilli ta ibilliz,
aunatuz, jo bea.
Barru-arantza biz
kanpotik lorea.

OTOIA

Zeru-lurren Yaube on
eta jakituna.
Sastakai-antzo sartu
da zure naikuna
nire biotz-erdian.
Urratu indar, Jauna,
ta aizto zorrotzaz bat
ekarri nigana,
azken lekuan beintzat,
zure esku biguna.

JAUNARTZE

Jaungoikoa nigana
dator Osti zuri
eginda. Nire gorputz-
biotzak garbi itzi,

Jauna, ta munduaren
aldeko opari
izanda gero artu
naizu Zeutzat beti.

GABON

Gabon-gabea
goian edurra.
Gabon-egunez
baketan lurra.

Gabon-gabea
Jainkoa jaio.
Gabon-egunez
gu poz-jario.

ZURE IXILTASUNA

Zure ixiltasunean
murgildu egingo naz.
Zure ixil-itsasoan,
izgora andi-beteaz.

Zure ixilla entzungo,
ixil andi-margodun.
Zure ixillak beteko
nire gogo irritsdun.

Zure ixillan itsaso
sakonean etzunik,
ixiltasunera so,
aren musikaz pozik.

SOÑU GOZOA

Soñu gozoa lez
barnera zayataz.
Soñu gozoa antzo
barnez zabilkidaz.

Zentzunak barreia
yatazan zoroki,
ta zerori sartu
ixillik-bigunki.

Zentzunak baturik
zerorren soñura,
geldi gabe dabiltz
barne-sakonera.

Zeure soñu-otsaz
jarri dozuz sor-gor.
Zeuri adi-adi
amets ta egikor.

ESKER-USAIÑA

Gaixorik nintzan,
gazte-gazterik.
Il-agiñean,
itun-itunik.

Neska gaztea
bidean aurki.
Bere maitea,
osasungarri.

Zaartzen noa,
bake-baketan,
Aren gozoa
dot gogo-ortzean.

Neska ederra,
andra biguna:
Ar nire eskerra,
biotz-atsona.

BEGI AREIK

Begi arein gozoa
eta pakea!
Begi arein sakona
eta maitea!

Barnea bigundurik
itxi dauste, eta
at-ondoa ederrez
bete-beteta.

Begi areikaz dakust
kanpoa; lurra
be, arein bidez dator
nire barnera.

Nire begien nini
bezela dauzkat.
Euki nagiela neu
euren mundutzat!

BERE ESKUAK

Bere eskuak bigunak ziran,
goizaldeko aizea lez.
Bere eskuak, bigun-samurрак,
eiñak suz eta edurrez.

Euren ikutu maitagarriak
begiak bete eustazan
lilluraz eta amets dardartiz.
Esku sorgiñak zituan!

Aren eskuen indar bizia!
Egon arren geldi-ixil,
nire barruko bizitza euren
gaiñean ariltzen dabil!

AREN BEGITARTEA

Aren mosua, luze-biribil,
legun-paketsu, itun-maitati!
Aren begiak, sarkor ta **bipil**;
aren ezpanak, metxu-dardarti!

Aren bekoki argi-zabala,
aren uleak, griña-mataza!
Aren begikun zintzo-apala;
aren egote, egote utsa!

Bere mosuaz bildu ninduan,
epel, astitsu ta bigunkiro.
Bere arnasaz berotu eustan
bular-ondo, leun-maitekiro.

Ez eban itzik ezpanetara
ekarri. Laño baltz-malkotsu bat
begietatik yakon atera
ta irriñoz esan, edo: joan yat!

Aren arpegi bete-betea,
illargi-antzo igaro doa
nire illunean. Argi-astea
berak, maiteki, zaindu daroa.

BERE MOSUA

Mosu a, leun-leuna,
bete-betea.
Gorritzka-baltzarana,
bere-berea.

Mosu a, itun samar,
bake-eztia.
Erdi il, erdi txingar
gori-goria.

BERA NIRE AMETSA

Amets bat izan neban
atzo, itzarturik.
Amets bat izan dot bart,
lo nengoalarik.

Amets bat izango dot
gaur, egun betean.
Amets egingo ere,
gaurik baltzanean.

Amets bat izango al
dot beti, lo-itzar.
Amets bat, gau ta egun.
Besterik ez bear.

Amets baten igaro
nire bizi-era.
Amets bakar batek bil
nagiala: Bera.

SUTZAR

Sutan daukat biotza,
sutan daukat odola,
sutan daukat gorputza,
sutan guna ta azala!

Zugaitik sutan nago.
Zugaitik nago sutan.
Zugaitik, soin ta gogo,
zugaitik, su-garretan.

Etorri zaitetz bizkor,
joan zaitetz urruti.
Sutan dirauket, gogor,
txingar eta illinti.

Etorri, erdu... ixil!
Joan, suntsitu... urrin!
Sutan nago; sutan il
artean, zain eta muin.

ZURE OROIA

Zure oroiz gau ta egun.
Zure oroiz lo-itzar.
Zugaz amesten, maitea,
malkoz urtu bear.

Bitartean, zu aztutzen
gizagaixo onegaz.
Nire samiñaren miña!
Nik oroi, zuk egaz...

Negarra be laster agor.
Ene samiñan poz
zaitetz, beintzat. Erdu, goza
naiten barriz malkoz.

SASTAKADA

Aren sastakai bildurgarria,
Aren sastakai sarkor-zorrotza!
Aren sastakai dizdiratsua,
Aren sastakai gogor-mingotsa!

Aren arpegi-irri maltzurra,
Aren begikun ez bai'litzango!
Aren ezpanen ezti gordea,
Aren soin eder-bero, otz antzeko!

ZURE IZKETA

Zure izketak,
doñu gozoaz,
igurtzi eustan
biotza.
Esku leun bat lez
kokatu yatan,
gozo-bigunki,
zure-itza.

Ainbat biderrez,
ordutik ona,
ibilli oi naz
alderrai;
bide legorra
zapaldu bear,
bakartadean
lagun-zai.

Orduan zure
itz maitatiak
ekarten ditut
gogara.
Bakar nagola
ba-dot laguna,
zure itz-iturri-
sustumurra.

ZURE IRUDIA

Bizi-eremuan,
eguzki-galdatan,
atseden-
toki baten guraz
sarri ibilten naz,
zoratzten.

Bero itogarriz,
soin-gogoak geriz
bat amets.
Zeure irudi-itzala
atseden zabala,
mugonez.

LOREA

Izen polita
zuk daukazuna.
Izen ederra
zurea.
Izen egoki
jarri dautsue
amets-lagunak.
Lorea.

Nungo lore ete?
Eusko mendien
artean jaio
oi dana?
Apal ta bakun,
bedartzan usain
ona zabaltzen
dauana?

Arkaitz gorrian,
gallur-aldera,
azke ta zintzo
sortua?
Ibar ertzetik
digaron urak
mur-mur kantariz
bildua?

Laiñotan blei-blei
dagon tontorra
zure seaska,
apika?
Sorgin-kutsuaz
naste, ilteko
letorkizuna
eskuka?

Ene lora apal,
jarraitu azke,
mardul, ezkutu,
sorgiña.
Atzerriko bat
ba'letorkizu,
biurtu zaitez
gaizkiña.

ZUGAZ IZGORA

Nire itsasoa
izbera danez,
zikiñak gaiñez
egin daroa.

Alaitasunak
berantza dagi,
ituna agiri
ta ur ondar loiak.

Etor zakidaz
zeure ugoldez,
dagidan gaiñez
iz-goi garbiaz.

ILLARGIPEAN

Illargipean,
zure gomutaz,
atzo egon naz
amets goxotan.

Illargia ixil
eta itun samar.
Odeiak ñabar,
gau-giro bipil.

Illargi-diz-diz
ta aize epela
gogoan, gela
batean, bediz.

Aize-argitan
dodan biotza
betiko irritsa
biur da, nigan.

Ixil ta bakar
argi dagizun,
neu euzki illun
nadin, su ta gar.

OSORIK

Andra apala,
andra biguna.
Andra gozoa,
andra kutuna.

Zure gorputza
lortu nai neuke,
zure gogoa
nabaitu-eske.

Ar nire soiña,
nire gogoa.
Nabai-zuretu,
nazan osoa.

ZAKIDAZ

Itz egidazu
gozo-gozoki.
Egon zakidaz
legun-legunki.

Gogoa miñez
daukat, biotza
zauriz, muiñetan
otzaren otza.

Makal gorputza,
zakidaz euskai.
Illun gogoa,
zakidaz pozkai.

ETORRI

Urrundik etorri
niri laguntzen.
Agertu zakidaz
nigaz egoten.

Luzaro zabiltza
nigandik urrun.
Ez dot nun jarririk,
maitea, iñun.

Egaz eta egaz
galdurik nabil.
Zure begitarte-
kabia zintzil

jar nire bidean.
Ba-duket aldi
zugaz, illuna goiz
etor ba'ledi.

ZURE ITZAK

Zure itzak eror
ziran niregan
gozoro, gabeko
intza-moduan.

Arrezkero biotz-
orriak diz-diz
daukadaz, otz-beroz
oparo aziz.

Betorkit ugari
zure itz-euritza.
Orri-zabal, dar-dar,
daukat biotza.

NEGAR POZA

Negar eta negar
nabil orduoro.
Malkoz urtu bear
barrua oparo.

Nire malko-latsa,
zure oroipena
uberka apatza,
gerta da ur gardena.

NEGAR IXILLA

Negar-malko bat dot
begietan dirdai.
Samintasun latz bat
barruan sastakai.

Gabaz ta egunez
barrua illunpetan.
Lan eta atsedan,
azalez bitsetan.

Negar-malko bat dot
begietan dirdai.
Orduoro zure
oroipena euskai.

ZURE GOZOTASUNA

Zure gozotasunak
ikutu daust barnea.
Zure gozo-gozoak
nire barne-illunpea.

Samindurik nengoan,
blei blei einda odolaz.
Geiago eziñean.
Ta nola eutsi, nolaz?

Ez dakit zure ala
gozo dalako maite
dodan. Baiña, beñola
pozez ninduzun bete.

ZURE OROIPENA

Egun latzetan
burrukan gogor,
geratu yatan
biotza legor.

Baratze lakar
yatzu aspaldi:
inguru lakar
ta negu-aldi.

Zure oroipen
beror gozaro.
Ba-duket lurmen
ontan azaro.

IZARRAK ESANGO

Izarrak diñoste,
erdi ezkutuan,
ñir-ñir maitatian,
izarrak... bai ete?,

diñoste, oraindik
maitatzen nozula.
Izarrak gau-bela
egiñaz nigaitik.

Neuk, bai, zu maitatzen,
ixillik-gozoro.
Ordu-uneoro,
lan eta atsedan.

Itandu izarrai.
Baietz esango, bart
nire negarraz bat
ein dabela dirdai.

ZURE SUSMURRUA

Bakar-ixiltasun esiz
inguratu neban lurra
baranoan eta ekin
lanari zuur-ziurra.

Zure susmuru geldia
etorri yatan gozoro
bakartade erdiraiño,
autsiaz esiak oro.

Sar-berria ziñan, nire
bideak ezagun, ala
lendik ote zindudazan
barruan, lagun apala?

Gelditu emen, nirea,
oarkabe, uki-eziña.
Zure susmuru geldia,
nire bakar-ixil zaiña.

EZEREZ

Ez dakit zer dun
gogo onek, ertun.

Argia illun lez,
illuna deusez

bai'litzan ager.
Ezer ez eder.

Polita itsusi,
motza ederki

lez artu. Zer dan
ez dakit, baiñan

zer edo zer bai.
Gogoia deslai

yabilt antziña.
Zelako miña!

Maite nebana
oin iñorena.

ARREBA ZAITUT

Zure gorputza ez da niretzat ezer.
Zure gogoia da dana niretzako.
Berton urrun zakust ta urrun bertoko.
Gogora nai zaitut eta beti alper.

Gogo-gogoan zaut, nire maite eder.
Gogoan zaut eta gogoratuteko
alperrik dagit lan. Gogoan betiko.
Gogo-gogoan ta muiñetan alaber.

Ez zara niretzat edozelakoa.
Laguna, kutuna, arrebatzakoa.
Ez etor nigana laguntasun-eske.

Etorri nigana arreba lakoa.
Arrebatzat zaitut eta gainekoa
niretzako ez da ezer zutaz beste.

GAZTEA NAZ

Gaztea naz eta
zertarako bero
dot nire odola?
Zertarako, gero?

Gaztea naz eta
zetako irakiten
dot nire gorputza?
Zertako? Ona emen:

Egunen batean
euskaldun laguna
nire erraietan
artzeko kutuna.

JUAN RUIZ DE ANDONEGI'REN ERIOTZA
Erandio'n, 7-IV-68

Gizon atsegiña,
euskaldun jatorra.
Luze eroan dozu
gexo gatz-gogorra.

Gexoak makaldu
dau zure gorputza.
Eraman-bearrak
kendu gogo-latza.

Bake-baketan il
zara, ixil-goxoro.
Zure inguruan
sendiak barbaro:

Il da lur onentzat,
bizi zerurako.
Goian zerutar bat,
bean iru eusko.

ALDEKOA TA LAMIKIZ'TAR MARIA JESUS

Ildakoaren gomutaz
Bilbo'n, 1969'ko forraillaren 2'an

Jainkoa aste santuz maitasun-
odolez il gure aldez,
azken orduan Aitari otoiz:
«Barka itzazu, mesedez».
Miren Josune'k be, azken orduz
beti bezela irriparrez,
danoi agur ta Aitari eske:
«Maita itzazu nik legez».

URRUNERA

Illuntzean, Arsuaga'ko baserri baten

Goiko munan baserria
zugazti-troka-inguruz.
Urrunean mendi goiak
beso zabaleko gurutz.

Aiton-amonak euskera
utsa ezpanetan ibil.
Etxe guztia barruan
bake-baketan ta ixil.

Irripar gozoa danak
arpegian etorkeran.
Ezkaratzera ezkeru
ugari jan eta itzetan.

Agur egiteko garaiz
sendikoak atadira.
Itzetan labur eta so
luze-luze urrunera.

BAKETAN

Mañu'ko errian

Mendi-inguruz Sollube-gaiña,
odei-maindiraz zeru-aldea.
Lurraren buru ta zeru-oiña,
maite-baketan, gaur bikotea.

Uriko jardun, kezka ta ataza
atzean itxi dodaz, zoritsu.
Tontor onetan, zabal arnasa,
amets-bideetan noa gogotsu.

Euzko mendiak-gizonak amets!
Uriko seme au nekez dator
zuokana. Atots naizue onez,
zabal naiten or bean emonkor.

IDI-PROBAK

Getxo, 15-VIII-69

Oiulariak baietz-ezezka.
Ikusleak begi-zorrotz.
Idiak asi dira arria
arrastaka, oraindik otz.

Beste untze bat eta idiak
gel-otzan, adur-jario.
Atzelariak ordun akullu-
makillari daragio.

Aida-makilka, garria makur,
indarka, iturrekoa.
Atzelaria bultzaka gogor.
Epel dago gau-aroa.

Berotzen asi da giza-aldra.
Idiak tenk, txinpartaka.
Probalariak oi u bizitan.
Ikusleak deadarka.

Berrogei ezetz! Bedratzi baietz!
Baserritarrak itz lasai.
Emakumeak txutxuputxuka.
Proba-leku dana ernai.

Azken-aldia dator. Idiak
alboraka. Atzelaria
ziztaka ari zaie tai gabe.
Adur-odol ugaria.

Aidaa...! Ia...! Idiak arnas-
estuka dira azkenean.
Itzaia izerdiz. Albo-lagunak:
«naikoa dozu gaurkoan».

ERREKA-OTSA

Mendi-magalean,
ixil eta abaro,
ur-bera gardena
jauzika oparo.

Lats-ertzean etzun,
euzki-alde lasai.
Begiak itxi ta
belarria ernai.

Gomuten erreka
ziri-zara daror,
biarko atazen
artean ameskor.

Biotz-ixillaren
ertzean jesarri
oi danak entzungo
barru-ura, ameslari.

ERIoTZA

Erio arreba, aspaldikoa.
Erio arreba, mamin-kutuna.
Atzerri onetan ziurtasuna
zugañ baño ez dut, alda-bakoa.

Egunero iltzen, zugana, noa.
Zu, bizi-bizirik, erdu nigana.
Bat eginda alkarri emon laztana.
Gure besarkada, betirakoa.

Il baño len nire lausengu-txera
atsegiñak zure begitartea
baño ez begie opa irrikaz.

Il-orduan zure esku-ikara
ta opagarrizko itzal maitea
lagun bakar-kutun izan bekidaz.

EZKUTUKO ARIA

ekitaldi bakarreko

antzerkia

EZKUTUKO ARIA

Antzez-lagunak :

ASPALDI.....jaiotzez euskalduna, euzkotarra,
gizon urtetsua ta zentzuduna.

ERRIKO ANDRAK.....talde bat

ERRIKO GIZONAK.....talde bat

KANPOTAR SENDI BAT...andra-gizonak

GEROKO.....kanpotarren semea

JARRAIKI.....erriko mutil jatorra

ERRIKO MUTILLAK...talde bat

BIKAINKI.....abertzale izandako abadea, mui-
ñetaraiño erdaldundua.

GURIKI.....abade erdalduna, egotez euskale-
rrian aspalditxo bizi dana.

BIGUNKI.....abade kanpotar orren adizkide
miña.

LENENGO AGERRALDIA

(Euskal erri bat, jai-egunez. Andra-gizonak kalean zear dabiltz, itz egiten eta aldratan alkarren lagun. Aspaldi etxeko balkoitik kalera begira. Egun eguzkitsu-alai).

ASPALDI.....Jai egunaren gozotasunaz
batetik bestera dabil
gure erriko gizadia, or.
Goitikako argitan bil,
pozez gaiñezka, andra-gizonak,
biotza ametsetan pil-pil,
bazterrik bazter dabiltz geldiro,
itzetan irria zintzil.

Gerora adi, lenari lotuz,
gaurkoa azten. Orretara,
beintzat, nai neuke nik ibiltea.
Alan be, ez dakit zertara
ote ditudan neure erritarrok.
Azalez, beintzat, itxura
berbera ekar oi dabe beti,
sen baten, euskal erara...

Bildur naz, baiña, sen baten utsak
ete diranentz, damurik.
Aspaldi ontan ezin dau iñork
ikusi azala baizik.

Ekaitza igaro artean, ezin
ikus sendo ala ustelik
diran. Igarri citeko ba'neu
siñismen-aztikeririk!

ERRIKO ANDRAK (taldean aurrera doazala)

Etor, gizona gugaz jaiera.
Itxi illunari atea.
Jai da-ta, lengo lorrak aztu ta
gaurkoari be berea
emon. Geroa geroko. Baiña,
zer dozu? Begitartea
illun? Eguzki betea dogu
or goian gure erregea.

(andrak joan doaz kalean gora ta gizonak agertu)

ERRIKO GIZONAK (taldean)

Andrakaz burua austen,
gizona? Alper-alperrik.
Goazen edaten. Biar
lanak izango goizetik.

ASPALDI.....Naikoa lan jai egunez
bere zuekaz. Beiñola

oi neban su-garra, gaur be
nirea ba'litz! Tamala!

Aiko kanpotarrok! Atzo
etorri ta gaur nagusi...
Obe leukie! Gureak
asiko ba'lira asi!

Joana joan, geroko
geroa ta oraingoa
eskuetatik joaten
utzi. Gure ondikoa!

Kanpotarrok!... Etxekuok!...
Geroaldia ta lena...!
Siñismen, aztikeriak...!
Burruka ala etsipena?

(besoak auma eginda edo, oldozketan, erdi ametsetan geratzen da,
nekatuta dalakoaren ezaugarriekin)

BIGARREN AGERRALDIA

(kale-erdi baten, arifieketan igaroten dan Geroko'ri, Jarraiki'k agur
legetxe egiñaz)

JARRAIKI.....Biar esango dautzut nik
zuri eskolan, ikusko!

GEROKO.....Ezetz lenengo atara!

JARRAIKI.....Biar arte, ba, mutiko!

(mutil lagunai)

Mutillak, ezetz igarri
Geroko'k zer esan daustan!
Baietz irabazi berak...

MUTIL LAGUNAK.....Onean ala txarrean?

JARRAIKI.....Onean gero! Azkarra
da mutilla pelotaka.

MUTIL LAGUNAK.....Olako kirolak nornai
beretu, apurka-apurka.

JARRAIKI.....Kirol orreik eta baita
lurrak be, egotez pizkat
bertan gelditu ezker...

Oin joan bearra daukat...

(batzuk atzeko aldetik eta Jarraiki alde batetik, diranak doaz
agertokia utsik utziaz)

IRUGARREN AGERRALDIA

ASPALDI.....(barriz balkoitik begiratzuz)
Benetan giro ederra!
Ara atsuok barriro...

(andrak etorri datoz joan diran lekutik)

Bai ezer konpondu ete
dabe eurok, ain gozoro?

ANDRA LAGUNAK.....(Aspaldi'ri lasai begiratuki).

ANDRAK ALKARRI.....Gizarajoa, urteak emon
bear ditu bere ortan.
Onek ez daki eguneroko
lan-izerdiak zer diran.

(Geroko'ri begira)

Gizarajoa, gosea baiño
ez dau ikusi errian.
Orain guretik jaten onera...
Jarriko zara luzean!

(Geroko'ri samur)

Da, mutil, ondo konpontzen zara
errian? Da, eskolan zer?
Oraindiño ez dausku euskera
ikasi. Ikasiko, eder?

Gureak lagun ditu, bestela!
Aita ta ama beti bazter
batean dabiltz. Arpegikeran
ezagun dabe: Bereber...

(Agiri dan mutiko-aldrari begiratuz)

Mutillak, sasoiz etxera, gabaz!
MUTILLAK.....Amar ta erdiak jota.

ANDRAK.....Goazen kafe bana artzera.
Or Azalguri taberna.

Gizonak laster dira gurekin,
ortxe danak jezarrita.
Azalguria guretik ta gu
beretik nonnai aseta!

LAUGARREN AGERRALDIA

(Kafe-etxean, andra-gizonak mai batzuetan eta ondoko baten abade
biak euren lagunagaz)
(Gizonak errirantza datoz)

GIZONAK.....(Aspaldi'ri)
Eup, lagun zarra, aparria jan
dozu onezkero? Baltza
ala zuria edaten zatoz
gurekin?... Txo... enparantza
ustuten doa. Goazan mokau
bat artzera, lagun batza
egiñik orko ardotegian.

ASPALDI.....Gaur iñork, lorik ez, antza...

GIZONAK.....Beingoagaitik ez dau ardura.
Bizia labur ta segur
iltzea da-ta. Gaur be zueke...

ANDRAK.....Androk be zeozer ziur
euki bearko. Ez gara amets-
zale orrein bape bildur.
Bearrik ere ez. Obe lanean.
(Begira yagoken Guriki'ri)
Buenas noches, padre, agur!

GURIKI.....Igualmente a todos ustedes.
¿Qué tal ha ido el día?

GIZONAK-ANDRAK (nastean)
Ederto baten ta zuek nola?
Zelako eguraldia!

GURIKI-BIKAINKI.....Encantados de este ambiente.
¿No hay sueño todavía?

GIZONAK.....Ba, konponduko gara. Zuek be...

GURIKI-BIKAINKI.....El esfuerzo da alegría.
Cada uno en lo suyo, todos
tenemos cada día la cruz.
Hermoso pueblo y próspero, ¿eh?

GIZONAK.....Apurka-apurka bultzatuz...
y los que vienen van encantados.

BIKAINKI.....¿Usted recuerda a Juan Kruz?
Era abuelo mío... Jatorra!

GIZON BATEK.....Zuk estudio asko dozuz!

BIKAINKI.....Ya sabe, para prosperar. Yo he
estado siempre en Lovaina,
pero ahora vivo mejor en
Vizcaya, claro. Qué pena,
un buen centro de enseñanza
aquí!

GIZON BAT (beste batek)
Bai, ba, euskalduna...
oingo gazteak polito datoz.
Irabazia be ona...

BIKAINKI.....Además de eso los vascos siempre...

(mutikoak etxerantza doazala an aurretik igaro)

JARRAIKI.....Zu, lagun, ba-dakizu non...

GEROKO.....Bai, biar arte.

BIKAINKI-GURIKI.....Todavía el
pueblo sin gran preparación...

(mutikoak ariñeketa baten iges)

BOSTGARREN AGERRALDIA

(Aspaldi'ren etxe ondotsuan)

ASPALDI.....Da, ondo ibilli gara, laguntxo?

JARRAIKI.....Bai, Aspaldi. Agur... gabon.

ASPALDI.....Ementxe dator Geroko ori,
burua argi, biotza on...

ASPALDI.....Zer edo zer on egin leiteke...
Gabaren epel-ederra!
Darabildan gai au osatzeko...
Tinko zapalduaz lurra
gaur, len-geroai begirik kendu
gabe, ene betiko arra!
Ari batean alkar, zar-gazte,
danak iraun bearra...!

GEROKO.....Agure onen esanak!
Itzez eta begiz
esanda daustan guztia!
Bere erri au, barriz...
Neuk ezer egin al ba'neu!
Euskaldunak, aldiz...
Jarrai nire lagunagaz
ta ain ume ez ba'nintz!

JARRAIKI.....Esate utsaren zarra!
Aoz eta miñez
esate zarraren utsa!

Gure zoritxarrez,
zintzoak baztertu dira
bildurrez, tamalez ..
edo agirian diran
zintzook diñoenez...

ASPALDI.....Ementxe dakart, jaun eta andreak,
lepokorako aria:
ari bikaiña, ezkutua arren.
Me-luzea. Lokarria
bezelatsu da len ta geroaz.
Gure lurreko sendia
ez dabil ager-guraz. Bat-iraun,
besterik ez. Andikia
ta berekoia, gurean ez sar.
Ariz gu, bitxiz Erria.

AZKENA

(oiala jasten da)

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak II
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñiak (2-garren argitalpena).
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkiak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.
33. Gabon - Abestiak (Intxausti'tar A - Gallastegi'tar K)
34. Españi'ko Olerkariak euskeraz
35. Prantzi'ko Olerkariak euskeraz
36. Españi'ko Olerkariak euskeraz II
37. Euskal Idazleak (II) Añibarro'tar A
38. Kikero'ren eskutitzak
39. Ezpata zorrotza-Ezkutuko aria (olerkiak-antzerkia)